GAMIZ-FIKAKO UDALA
BIZKAIA

UDALEKUAK EUSKARAZ ANTOLATU ETA KUDEATZEKO ZERBITZUAREN PLEGU TEKNIKOAK

1.- KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratu honen bitartez nahi da Gamiz-Fikan ekainaren azken astea eta uztailaren amaiera bitarteko lanegunetan, astelehenetik ostiralera bitartean (jai-egunak izan ezik) udalekuak euskaraz antolatu, kudeatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren zerbitzuen prestazioa ematea. Helburua da, haurren artean euskararenerabilera eta horrekin batera haurren arteko elkarbizitza, parte-hartze ohiturak, herriko bizitza eta herriko bizimoduan oinarritutako jarduerak eta kirola sustatzea.
Gainera bazterketarik gabeko balio eta jarrerak garatuko dira eta bizikidetza eta ingurumenarekiko errespetua sustatzen dituzten jarduerak landuko dira.

2.- PLANGINTZA ETA MEMORIA.

Udalekuak hasi baino lehen, enpresa esleipendunak Udalekuaren jardueren plana aurkeztu beharko du, aste bakoitzaren plangintza zehaztuz. Bertan, begiraleen zerrenda aurkezteaz gain, taldeen banaketa eta garatuko dituzten ekintzak zehaztuko dira.

Udalekuak bukatzerakoan, egindako ekintzen gaineko funtzionamenduari buruzko Memoria udalean erregistratzea eskatzen da, jarraian zehazten diren esparruak jorratu beharko dira gutxienez:

- Proiektuaren helburu zehatzak.
- Jardueren programazioa.
- Prestakuntza, metodologia eta edukiak.
- Euskararen erabileraren inguruko balorazioa.
- Berdintasuna sustatzeko egindako ekimenak.
- Elkarbizitza, parte-hartze ohiturak, herriko bizitza eta aberriko ohiturak, historia eta geografia jakinarazteko garatutako ekintza eta jokoak.
- Erabiltzaileen eta gurasoen asebetetze maila.
- Begiraleek egindako balorazioen ondorio nagusiak.
- Materialen gastuak justifikatzeko kontu xehatua, ordaindutako fakturen kopiak aurkeztuta.

3.- ZERBITZUA EMATEKO UDAL ERIKINAK, PLAZA KOPURUA, ORDUTEGIAK ETA EGUNAK

Udaleku zerbitzua emateko besteak beste, herriaren baliabideak honakoak dira:

- Frontoi 2
- Liburutegitxoa
- Berdeguneak
- Igerilekuak
- Jolas guneak
- Ludoteka

➢ Txangoak egin beharko dira:

Astero txango bat:

- Txangoak herrian: 4 (autobus barik).
- Txangoak herritik kanpo: 2, Hondartzara autobusean.

Eskaintzak aurkezterakoan txangoen proposamena aldatu daiteke. Kasu horietan, lizitazioa irabazten duen eskaintzan aurkeztutakoa loteslea izango da.

Astean behin gutxienez igerilekuetara joango dira (herriko igerilekuetarako sarrera doan izango da).

2014ko urtarrilaren bata 2022 abenduaren 31 bitartean jaiotako umeek parte hartzeko aukera izango dute. Udalekuaren plaza kopurua 60 umekoa izango da, zaintza berezia beharko lukeen umerik egotekotan, bere beharrizanetara zuzendutako begiraleak beharko lirateke, beti ere indarrean dagon araudia errespetatuz.

Ekainaren 22tik uztailaren 30era, lanegunetan, eman beharko da zerbitzua eta hurrengo aukerak kontutan hartu beharko dira:

5 aste (ekainaren 29tik uztailaren 30arte)

6 aste (ekainaren 22tik uztailaren 30arte)

Astelehenetik ostiralera, 9:00-14:00

Eskainiko diren ordutegiak hurrengoak izango dira:

9:00-14:00

10:00-14:00

Talde banaketa izen emate eta adinaren araberakoa izango da.

4.- ESLEIPENDUNAREN BEHARGINAK

Esleipendunak kontratatutako zerbitzuak eman beharko du gutxienez hurrengo langileekin:

- Sei begirale, 09:00etatik 14:00etara. Gainera, horietako batek, udalarekin harreman, langileen koordinazioa eta jardueren koordinatzaile beharrak egin beharko ditu.

- Gamiz-Fikako Udalak plaza kopurua egokitzeko ahalmena hartzen du, izen emate kopuruaren arabera, beti ere, Eusko Jaurlaritzak ezarritako gehienezko ratioa errespetatuz; eta batez ere zaintza berezia beharko lukeen umeek beraien egokitutako begiraleak behar dituzten kasuetarako, besteak beste banakako arreta behar duten beharrizan fisiko, psikiko edo zentzumenezkoren bat duten haurren zaintzarako, betiere txosten tekniko edota mediku egiaztagiri bidez.

- Begirale beharretan aritzeko proposatutako guztiek, homologatutako eskolek emandako aisialdi begirale titulua izan beharko dute.

- Begirale guztiek udalerriaren errealitatearen jakintza izatea eta aldez aurretik, adingabekoekin lan egitea komeniko zan.

Udalekuen garapenean ohiko komunikazio hizkuntza euskara izango denez, kontratua emateko langile guztiek, euskararen ezagutza beharko dute ahoz zein idatziz. Hori dela eta, koordinazio lanak egingo duenak eta beste bik C1 gaitasun maila edo horren baliokideren baten bidez egiaztatu beharko dute eta gainerakoek B-2 edo baliokidea.

Kontratatutako langileek laneko legeriak eta indarrean dagoen gizarte segurantzak eskatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte. Jarduera dirauen bitartean indarrean dagon Bizkaiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Hitzarmenak jasotzen dituen soldatak ziurtatu beharko dira.

Boluntariotzaren 45/2015 Legean eta 26/2015 Legeak aldatzen duen Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, esleituak adingabeekin lan egingo duten behargin guztien Sexu-deliturik egin ez izana egiaztatzeko ziurtagiri negatiboak ekarri beharko ditu.

5. UDALAREN ETA ESLEIPENDUNAREN EGOERA KONTRATUAREN INDARRALDIAN.

5.1. - Udalaren egoera

Udala da zeharka emango den zerbitzuaren titularra; zerbitzu hori momentu guztian Udal Zerbitzu Publikoa izango da, Udalak daukan eskumenak aintzat hartuz. Udalak zerbitzua ikuskatu eta haren kudeaketa kontrolatzeko ahalmena izango du momentu guztian, aurrekoa kontutan hartuz.

5.2.- Esleipendunaren egoera

Kontratua indarrean dagoen bitartean, esleipendunak Zerbitzu Publikoa emango du. Jatorriz administrazioari dagokion jarduketa esparruan diharduenez, zerbitzua kudeatzeko eskumenak ditu. Eskumen horrek jabetza eskubideak salbuetsiz emango zaio eta hirugarrenei kalterik egin barik.

6.-ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Esleipendunak Erantzukizun Zibileko asegurua kontratatu beharko du, karatularen kontratua gauzatzeko VI atalean zehaztutako zenbatekoarekin, jarduera egiten den bitartean eta berorren kopia ekarri beharko du udaletxera, kontratua izenpetu aurretik.

Udalekuak hasi aurretik udalaren esku egon beharreko dokumentuak:

-Udalekuaren jardueren plana.
-Parte-hartzaileen zerrendaren kudeaketa eta taldeen proposamena.
-Begiraleen hautaketa zerrenda eta asteko plangintza.
-Begirale guztien Sexu-deliturik egin ez izana egiaztatzeko ziurtagiri negatiboak .
-Ebaluazioaren eta asebetetze-galdetegia.

Udalekuak hasi orduko familiekin batzar informatiboa egitea ezinbestekoa da.

Esleipendunak gerta ahal zaion edozein gorabehera adieraziko dio udaleko arduradunari.

Esleipendunak, 2026ko irailaren 15erarte epea izango du plegu honen 2 atalean jasotako ebaluazio memoria udaletxean (euskaraz) aurkezteko, udalekuen garapenaren ebaluaketarekin hobetzeko iradokizunak eta proposamenak jaso beharko dira. Horrekin batera, egindako jarduerak jasotzen dituen txostena ekarri beharko du, genero eta adin ikuspegitik.

Zerbitzua ematen duen enpresak erabilitako udal baliabideak, ekintza hasi aurretik zeuden egoera berean itxi beharko ditu, horrela ez balitz eragindako kalteen erantzulea izango litzake.

Esleipendunak hizkuntza, dokumentazio eta material ez-sexista erabiliko du. Era berean, berdintasuna, dibertsitatea, rol aniztasuna eta erantzunkidetasuneko balioak sustatuko dira.

Esleipendunak funtzionamendua eta Udalarekin hartu-emana errazteko eta laguntzeko honako ahalbidetuko du:
-Astelehenetik ostiralera 8:30etatik 14:30etara harremanetan jartzeko telefono zenbakia eta solaskidearen izena.
-Posta elektronikoko helbidea.

Kontratuaren helburu diren agiriak, memoriak, zirkular informatiboak, gutunak edo beste era bateko beharrak, udalera ekarri beharrekoak, familiei, edota jendaurrean aurkeztu behar direnak, euskaraz eta gaztelaniaz jarriko dira eta lehentasuna euskarari emango zaio bai itxuraren aldetik bai kokapenaren aldetik.

Esleipendunak behar dituen beharginak kontratatuko ditu zerbitzua emateko. Langileak esleipendunaren menpe egongo dira, esleipendunak izaera horri dagozkion eskubideak eta betebeharrak izango ditu, eta bere ardurapean dauden langileek, laneko segurtasunari eta higieneari buruzko indarreko xedapenak bete beharko dituzte.

Zerbitzua aurrera eroateko sortzen diren gastu guztiak (beharrezkoa den pertsonalaren soldatak, Gizarte Segurantzako kotizazioak, administrazio kostuak, beharginen dietak, materiala, txangoak egiteko autobusak, sarrerak…)

7.- UDALAREN BETEBEHARRAK

- Udalekuen publizitatea egitea
- Izena emateko epea irekitzea eta tasak kobratzea.
- Kontratistari inskribatutako pertsonen kopurua eta adina jakinaraztea.
- Emandako zerbitzuari dagozkion fakturei oniritzia ematea eta ordainketa egitea, horrela badagokio.
- Egiten zaizkion galderak erantzutea, behin esleipendunaren iritzia entzunda.

8.-GAINONTZEKO BETEBEHARRAK

<u>EUSKARA</u>

- Zerbitzu hau euskaraz ematea ezinbestekoa da. Izan ere, zerbitzua jasoko duten neska-mutilen adina 4 eta 12 urte bitarteko daleko, egunerokotasunean gehienek euskaraz egiten dutelako. Ondorioz,

begirale euskaldunak beharko dira jolasak euskaraz egiteko, euskarazko materiala garatzeko, euskararen erabilera sustatzeko planifikazio lana egiteko.

- Zerbitzua emateko beharrezko diren agiriak, memoriak, zirkular informatiboak, gutunak, batzarrak, bai udaletxeari zuzenduak, bai familiei, bai jendaurrean jarri beharrekoak, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz jarriko dira, beti ere euskarari lehentasuna emango jako bai itxuraz bai kokapenaren aldetik.

- Erabiltzaile eta talde bakoitzaren hizkuntza errealitatea kontuan hartuta, estrategiak martxan jarriko dira talde bakotxean euskararen erabilera sustatzeko, euskararen aldeko jarrerak bultzatzeko eta euskal kulturaren jakintza zabaltzeko.

BERDINTASUNA.

INGURUA eta OHITURAK. Udalekuetan nesken eta mutilen arteko elkarbizitza osasuntsua eta aukera berdintasuna bermatzeko bitartekoak jarriko dira: neska zein mutilentzat interesgarria den eskaintza egingo da, parte-hartze aktiboa bultzatuko da, genero irizpidea kontuan hartuko da taldeak eta espazioa banatzeko orduan, esleipendunak hizkuntza, dokumentazio eta materiala ez-sexista erabiliko du. Era berean, berdintasuna, dibertsitatea, rol aniztasuna eta erantzunkidetasuneko balioak sustatuko ditu.

INKLUSIOA.

Haurren arteko aniztasuna kontuan hartuko da eta dibertsitatea zainduko da, arreta eskainiko zaie ume bakoitzaren berezko beharrei, guztientzako eta bakoitzarentzako esanguratsua izango den esku-hartze hezitzailea garatuz eta sustatuz. Ikuspuntu integratzailetik behar egitea, baztertuak izateko arriskua jasaten dituzten adierazleak agertzen agertuko balira berauek zuzentzeko neurriak hartuko dira.

Ingurumenarekiko errespetua kontuan hartuko da batez ere, txangoetan, dena garbi utziz eta mantenduz.

Herriko abestiak eta inguruko herrien geografia sakondu beharko dira.

8. –OSASUN PUBLIKOARI BURUZKO SEGURTASUN NEURRIAK.

Momentuko osasun egoeraren araberako neurriak hartuko dira, osasun agintariek agindutakoaren arabera, neurriak zorroztu edo malgutu ahal izango dira.
Beti umeen ongizatea bermatu beharko da.
Umeren bat edo begiraleren bat gaixotzen bada edo susmoa badago, Osakidetzako protokoloak jarraitu beharko dira, egoeraren arabera gerta daiteke udalekua bertan behera geratzea. Kasu horretan, kuotaren zati proportzionala itzuliko zaie familiei.

Programazioak, jokoak, irteerak eta abar, unean uneko osasun egoerara egokituko dira.

AMAIERAKO OHARTARAZPENA:

Euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean interpretazio-auzirik sortuko balitz, jatorrizkoa euskaraz idatzitakoa dela kontuan izanik, hura hartuko da aintzat lizitazio honetako testu guztietan.

Plegu hauek 2026ko apirilaren 14ko 42-2026 alkatetza-dekretuaren bidez onartu dira.